



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Zer egiten dugu kabitzen ez zaizkigunekin?

Aurrekoan genion gero eta gehiago direla, gero eta gazteagoak, heziguneetan marraztu ditugun «eskola ibilbide» gero eta estu eta zurrunagoetan kabitzen ez zaizkigun haurrak. Eta galdera bat utzi genuen airean: haur eta gazte horiek ikasle izaeratik haratago ikusiak ote dira, ikusten ote ditugu?

Ukaezina da eskolaren, neska-mutilen eta etxekoen artean arrakala gero eta handiagoa sortzen ari dela. Eskolan ikasle batzuek zergatik duten arrakasta eta, batez ere, beste batzuek zergatik ez duten aztertzen hasiko bagina, hamai-ka hari izango genituzke nondik tira, ezbairik gabe.

Eskola erdigunean jarri eta hari horri tiraka, Francesco Tonucci pedagogo, marrazkilari eta pentsalari italiarrak elkar-riketa interesgarri batean zioena ekarri nahiko nuke le-errootara: «Eskola denentzat zabaldu zenean, unibertsalizatu zenean, bakar batzuentzat prestatuta zegoena denei eskaini zitzairen. Horregatik egin zuen porrot eskolak».

Eskolak ez du lortzen bere funtsezko helburua izan behar-ko lukeena betetzea: jaiotzez neska-mutilek dituzten despa-rekotasunak orekatzea. Eta desparekotasun horien artean sartu beharko genituzke ekonomikoak, sozialak, generoko-ak, kulturalak, ideologikoak eta hizkuntzakoak, gure ka-suan, euskarari dagozkionak, esaterako.

Eta zer egiten dugu eskolan kabitzen ez zaizkigun neska-mutilekin? Euskal Autonomia Erkidegoan, erromesaldia ha-si beharko dute: tutorea, heziguneko orientatzailea, Berri-tzeguneko aholkularia, pediatra, neurologoa, psikiatra... eta hor erantzunik aurkitzen ez badute, etxekoen eta eskolaren ezina baretzen ahaleginduko den zerbitzu pribatuen eskain-tza oso bat. Jakinik ere, ikerketek diotena: eskola eskakizu-



Eskolak hausnartu beharra dauka «nola izan denentzako eskola». GAUR8

netara ongi egokitzen ez den ume orok ez duela, nahitaez, nahaste psiko-patologiko bat izan be-har. Nafarroan, aldiz, he-ziguneko orientatzaileak bidera ditzake aprendi-zaiaren nahasmenak, ikasleari azterketak egi-terakoan denbora gehia-go izateko eskubidea emango dion agiria lu-zatuz, adibidez. Izan ere, denek aldi berean, eta denbora beraren ba-rruan aritu behar izate-ak ere baztertu egiten du.

Onar dezagun. Eskolak hausnartu beharra dau-ka “nola izan denentza-ko eskola” eta aitortu be-har du hainbat adimen mota daudela, eta, ondo-rioz, orain egiten duen eskaintza baina anitza-go egin behar duela.

Horra hezitzaileon eta eskolaren zeregin behi-nena, sekula gogotik

eta begiradatik galdu behar ez genukeena: pertsonekin ari gara, beste zenbait izaterekin batera ikasle izaera du-tenak. Bestela, ikasle gisa porrot egiten dutenek, pertsona gisa ere porrot egin dute. Inklusioa, aukera parekotasuna eta beste zenbait izango dira bazterkeria saihesteko tresnak. Eskolak denon arrakasta izan behar du helburu, batez ere arrakasta pertsonala; atzean ez geratzeko bermea da. Eta neska-mutil bakoitza dagoen puntutik abiatzen da, bere motxilarekin, bere gaitasunekin eta bere zailtasunekin. Guztiei aurrera egiten lagundu behar diegu, inor ez dadin atzean geratu.

Sarritan barruan oihartzun egiten didate alabaren boti-kak probatu ondoren, gerta ala gerta, eskolan hobetzeko bo-tikak gehiago ez ematea erabaki zuen adiskidearen hitzek: «Ez duzu imajinatzen heziguneetako ateetatik at eskolan kabitzen ez direnentzat zer sare dagoen antolatuta». •